

Kostuen Egitura

Enpresako kostuen egitura hainbat sailetan banatuta dago, baina, kostu finkoak eta aldakorrak osatzen dituzten banaketa azaldu baino lehen, horien kanpoan aurkitzen diren gastuak azaldu beharrekoak dira. Gure enpresaren kasuan, aplikazio bat denez, ez genuke beharko hasierako inbertsio handirik, bakarrik, denden webguneak ikusteko sarbide zuzena eskainiko genuke, eta denbora pasa ahala, inbertsio txikiekin enpresa handituko dugu.

Alde batetik, kostu finkoak daude, horien artean, enpresa guztietan bezala, alokairua, argia... eta mota horretako hainbat gastu aurkitu ahal dira, kostuen %24-a dira. Dendekin egindako akordio gehienak kostu mota honetan sartuko lirateke, eta %33-a suposatuko lukete. Beste aldetik, I + D-en inbertsioak egitea gure gastuen parte ere izango lirateke %23-rekin. Azkenik, kostu finkoekin jarraituz, materialen ehuneko bat aurkituko genuke, adibidez ordenagailuen kasuan, eta guzti hauek %20-a suposatuko lirateke.

Bestetik, kostu aldakorrak daude, hau da, enpresaren aktibitateak kontuan hartuta aldatzen direnak. Horien artean, kostu finkoetan bezala, materialak aurkitzen dira, adibidez, bulegoko materiala, gastu aldakorren %30-a direnak. Jarraitzeko langileen soldatak daude, enpresaren beharren arabera gehiago edo gutxiago kontratatuko genituzkeelako eta %37-a suposatuko lirateke. Amaitzeko publizitatean inbertitutako dirua dago, gure aplikazioa jendeari jakinarazteko erabiliko genukeena, kostuen %33-arekin.

KOSTUEN EGITURA

